

## LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

**IKASLEAK IRAKASTETIK, PERTSONAK HEZTERA: NORK  
BERE BURUA EZAGUTZEAK HEZKUNTZAN DUEN ERAGINA**

**Egilea: Selene del Fresno Villar**

**Zuzendaria: Ana Arribillaga Iriarte**

**Leioan, 2015eko ekainaren 2an**

EGILEAREN ONIRITZIA



SELENE DEL FRESNO VILLAR

Selene del Fresno Villar

## AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera.....	5
1.1. Aurrekariak.....	5
1.2. Autoezagutza, zer da?.....	6
1.3. Autoezagutza motak.....	7
1.4. Autoezagutza eta gizartea.....	9
1.5. Autoezagutza eta eskola.....	10
2. Metodologia.....	10
2.1. Zer da ebaluatuko dena? Nola?.....	14
3. Lanaren garapena.....	15
4. Emaitzak eta ondorioak.....	19
4.1. Emaitzak.....	20
4.2. Ondorioak.....	22
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	25

### ERANSKINAK

1. eranskina: Autoezagutza motak, eskema
2. eranskina: Autoezagutza ez akademiko motak, azalpena
3. eranskina: Pretestaren fitxa
4. eranskina: Pretest eta postestaren galdera irekiak ebaluatzeko irizpideak
5. eranskina: Ariketa bakoitzaren azalpen zehatza, taulak
6. eranskina: Irudiak 1 eta irudiak 2
7. eranskina: Egoera
8. eranskina: Bideoen linkak
9. eranskina: Ariketaren azalpenaren zirriborroa
10. eranskina: Nor eta nolakoa naiz ni? (ikasleen ikuspuntutik)
11. eranskina: Interbentzioak ebaluatzeko plantilla
12. eranskina: Ikasle bakoitzaren erantzunak (pretest eta postest)

**IKASLEAK IRAKASTETIK, PERTSONAK HEZTERA: NORK  
BERE BURUA EZAGUTZEAK HEZKUNTZAN DUEN ERAGINA**  
Autoezagutza akademikoa eta esfortzua hezkuntzaren oinarri

Selene del Fresno Villar

UPV/EHU

Lan honek hirugarren mailako neska-mutilengan autoezagutza akademikoak duen garrantzia behatu eta ikertu nahi du. Helburu bezala, ikasleak bere burua ezagutu, norberaren nortasuna garatzeko oinarritzkoa dena, eta inguruan dituzten pertsonen iritziak errespetatzea planteatu da. Gainera, esfortzuak prozesu honetan ez ezik, hezkuntza sisteman zein aspektu sozialean duen garrantzia ere erakutsi nahi da. Emaitzek aldaketa batzuk adierazten dituzte, batez ere, autoezagutza akademikoan.

*Hezkuntza sistema, autoezagutza akademikoa, esfortzua, nortasuna, errespetua*

Este trabajo pretende observar e investigar la importancia del autoconcepto académico entre niños y niñas de tercero de primaria. Se ha planteado como objetivo el que los alumnos se conozcan a sí mismos, base de su propia identidad, y que respeten las opiniones de las personas que les rodean. Además, se quiere demostrar la importancia que tiene el esfuerzo en este proceso tanto en el sistema educativo como en el social. Los resultados presentan algunos cambios, sobre todo, en el autoconocimiento académico.

*Sistema educativo, autoconocimiento académico, esfuerzo, identidad, respeto*

This work aims to observe and investigate the importance of the academic self-concept among children cursing the 3rd grade of primary school. The objective is for children to get to know themselves, their identities and to respect other's opinions. Furthermore, it is required to show how important the effort is in this system as well as in a social aspect. The results presents some changes, especially, in the academic self-concept.

*Educational system, academic self-concept, effort, identity, respect*

## Sarrera

Lan honek oinarritzko interesa du ikas-irakaste prozesuan autoezagutzak duen garrantzia ikertzean. Honetan, autoezagutzak barne hartzen duen arlo akademikoa eraginkortasun handiagorekin aztertzea erabaki bada ere, gainerako aspektuak zeharka landuko dira; horretarako, Lehen Hezkuntzako ikasleekin lan egiteko garrantzizko elementuak kontsideratu izan diren horiek praktikan jarriko direlarik.

Uste da irakasleek irakasgaiak soilik irakatsi behar ez dituztela, baizik eta ikasle guztiak ikertu behar dituztela, bakoitzaren oinarritzko beharrak zeintzuk diren jakiteko. Hezkuntzan, hau da garatu nahi den prozesua, umeen aspektu akademikoa hazteaz gain, norberaren ezagutza eta sentimenduak adierazteko gaitasuna izatea.

Bizitza profesionala zein pertsonalerako norbera ezagutzearen garrantzia ikertu nahi da, ikasle kultu zein sentikorrak sortzeko xedea izango duena. Honetan, bakoitzaren “ni”a posibleak arakatu zein aztertzeko gai izango dira, eta horren ondorioz, “desberdinak eta berdinak” diren kideekin lan egin ahal izango dute. Horretarako, bakoitzaren barneko pertsona arakatuko dute eta horren ondorioz, nortasunaren arabera jokaera ezberdinak izaten ditugula ulertzeko gai izango dira.

Proiektu hau lan berezizat har genezake, non landa lanak paper garrantzitsua hartzen duen, ondorioak eta lan honetan ikertuko dena egiaztatzerako orduan. Proiektu honen oinarria, ikertu nahi dena praktikan jartzea izango da, honen helburua, ikasleak gainerako pertsonak ulertu eta errespetatzea (kasu honetan, ikaskideak) eta esfortzuaren bitartez nahi beste lortu dezakegula ulertzeko gai izatea izango delarik.

Aurretik esan bezala, honek guztiak landa lana behar du, hiru hilabeteko iraunaldia izango duena. Honetan, hasierako eta amaierako pretest eta postestak hartuko dute parte, eta baita hiru hilabete hauen barnean egingo diren esku hartzeak ere. Behin hau eginda, lortuko diren emaitzak aztertu eta ondorioztatzeko gai izango gara.

Lan hau betidanik psikologiaren arloa gustatu izan zaidalako, eta norbera ezagutzaren garrantziak eskolan zer nolako eragina duen frogatu nahi izan dudalako aukeratu dut. Interesgarria eta praktikoa iruditzen zait, non ikasleek akademikoki ez ezik, pertsona bezala duten ezagutza maila ezagutuko dudan.

## 1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

### 1.1. Aurrekariak

Eskola edota hezkuntza esparrua begi bistatik galdu nahi gabe, Euskal Herriko curriculumaren zati hau txertatu nahi da, lan honi erreferentzia egiten baitio. Era honetan, autoezagutzaren ideia orokorra zein esfortzuzaren kontzeptua aipatzen dira, proiektu edota lan honen oinarriak izango direnak.

Pertsona gisa garatzen ikastea, norbera izanda, eta emozio negatiboak kontrolatzea eta nork bere burua modu positiboan eta errealistan balioestea. Pertsona autonomoa izatea, norberak hartutako erabakien ardura hartzea, eta printzipio etikoei jarraitzea.

Egiten eta ekiten ikastea, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan. (Euskal Autonomia Erkidegoko oinarritzko hezkuntza curriculum, 2010; cap 1, 6.art)

Era berean, autoezagutzarekin zer ikusi handia duen beste autore, eta kasu honetan filosofo batek ere honi buruzko aipamenak egin zituen, non, argi uzten duen bakoitzak bere pertsona ezagutzeak duen garrantzia. Platonen arabera, “Conociendo la naturaleza me conozco mejor a mi mismo, pero no podré alcanzar a comprender la esencia de lo externo, sin autodescubrirme primero”. Platón (428/427-347). Filosofo honek ez ezik, Kantek (1989) ere honako hau esan zuen: “Que la tarea de autoconocerse es la más difícil, porque comunica la idea de autoconocimiento completo, terminado y perfecto”. (Gascón, A. D. L. H. ek aipatua, 2004:8)

Hau guztia kontuan harturik, autoezagutzaren garrantzia azpimarra daiteke, bakoitzaren bizitzan barne hartzen duen faktore garrantzitsu bat baita, eta horren arabera jokatzeko baitu gizakiak. Hau horrela izanda, marko teorikoa izeneko atal nagusi honetan, autoezagutzaren definizio ezberdinak emango dira, eta honekin batera, autore zehatz batzuek egindako sailkapenari buruz ere hitz egingo da. Ondoren, autoezagutza kontzeptu hori beste bi ataletan banatuko da, eskolan eta gizartean duen garrantzia azpimarratzeko asmoz.

*“Nacemos humanos pero eso no basta: tenemos también que llegar a serlo. ¡Y se da por supuesto que podemos fracasar en el intento o rechazar la ocasión misma de intentarlo!”*

Savater, F (1997)

## 1.2. Autoezagutza, zer da?

*“De todos los conocimientos posibles, el más sabio y útil es conocerse a sí mismo” –*  
(William Shakespeare; MARTOS, A. C. ek aipatua, 2011).

Autoezagutzaren kontzeptua ezagutza zientifikoaren barnean gehien ikertua izan den eraikitzaile psikologiko bat da, non autore ezberdinen arabera, “autopertzepzioa”, “autokontzeptua”, “autoirudia”, “autoestima”, “norberaren irudikapena”... aurreko hitz hauek autoezagutzaren sinonimotzat har daitezke. (Wylie, 1974; Wells y Maxwell, 1976 et al. ; Sánchez, S. R. ek aipatua, 2010)

1980ko hamarkadan, Beane eta Lipka autoezagutza edo autokontzeptua eta autoestima desberdintzen hasi ziren; autokontzeptua akademikotzat hartuz, eta autoestima, aldiz, aspektu afektibotzat.

El autoconcepto hace referencia al conjunto de conocimientos que cada persona tiene sobre sí mismo, lo que cada uno sabe sobre su forma de ser y actuar (...) La autoestima, se relaciona más con las valoraciones que cada uno hace sobre sí en función de cómo se percibe, cómo le gustaría ser y cómo cree que los demás lo valoran. (Clark, Clames y Bean, 2000; Sánchez, S. R.ek aipatua, 2010).

Autoezagutzari buruzko hainbat definizio ezberdin daudela jakinda, lan honetan, bizpahiru soilik aipatuko dira, zehatzagoak direla uste baita. Era berean, proiektu honen oinarria autoezagutza ez ezik, esfortzua ere izango da. Kontzeptu hauek guztiak era hobean ulertzen dira gaztelaniaz, eta hori horrela izanda, lan honek barne hartuko dituen definizio gehienak gaztelaniaz aipatuko dira.

Hamachek (1981) dioenaren arabera, “el autoconcepto es el conjunto de percepciones que el sujeto tiene de sí mismo; (...) el conjunto de características, cualidades y deficiencias, capacidades y límites, valores y relaciones que el sujeto conoce como descriptivos de sí y que percibe como datos de su identidad”. (Hamachecek, 1981, Machargok aipatua, 1991, 24.orr.; Roda, M. D. S., & Sánchez, F. J. P.ek aipatua, 2003).

Argi dago autoezagutza, autokontzeptua, autoestimua... kontzeptu hauek, pertsona bakoitzaren nortasunean era batean edo bestean integratuta daudela eta gizartean jokatzeko moduaren arabera, horiek era batean edo bestean garatuko direla. Horren

ondorioz, gizarteak ere rol garrantzitsu bat hartzen du aspektu honetan, eta hau indartzeko, Shavelsonek, Hubnerrek eta Stantonek (1996) hauxe esaten dute; “El autoconcepto es la percepción que cada uno tiene de sí mismo, que se forma a partir de la experiencias y las relaciones del entorno, en las que las personas significativas desempeñan un papel importante”. (Roda, M. D. S., & Sánchez, F. J. P.ek aipatua, 2003).

Autoezagutza, beraz, ezagutzan ez ezik, nork bere buruaren inguruko jakintzan sakontzeko aukera izatea da. Alderdi horretatik, ezagutza mota guztiek denbora eskatzen dute, eta honekin batera, gogoeta kritikoa.

Zenbait aldiz gertatzen da besteek erraz ikusten duten hori ez duela norberak ikusten? Denek ikusten dute ikusi beharrekoa ikusi beharko lukeen pertsonak izan ezik. (Arabako hitza, 2014).

Honen harira, garrantzitsua da geure burua ezagutzea, nola jokatzeko, pentsatzeko eta sentitzen dugun jakitea, bakoitzaren izaerarekin bat datozen erabakiak hartu ahal izateko.

### 1.3. Autoezagutza motak

*“Si al autodescribimos nuestros juicios de valor son satisfactorios, entonces obtendremos un autoconcepto global positivo; en el caso contrario generaremos sentimientos negativos y por tanto repercutirá en un autoconcepto global negativo”.*

(Harter, 1986; Roda, M. D. S., & Sánchez, F. J. Pek aipatua, 2003)

Hau horrela izanda, Epsteinek, (1974; Sánchez, F. J. Pek aipatua, 2003) egindako sailkapena komentatu nahi da. Autore honek, autoezagutzaren barruan hainbat aldagai daudela dio, horietako bakoitzak, bere erara, norberaren nortasuna eraikitzeke unean garrantzia handia duelarik. Epsteinek autokontzeptua errealitate konplexutzat definitzen du, non aspektu batzuk dituen barne; hala nola, autoezagutza fisikoa, soziala, emozionala eta akademikoa.

Jakinda autoezagutzaren kontzeptua multifaktoriala dela eta sailkapen asko daudela, behin autore ezberdinak kontsultatuz, Shavelsonek, Hubnerrek y Stantonek (1976; Pappas, J. D., & Friedman, H. L. aipatua, 2007), egindako sailkapen hierarkiakoa eta

multidimensionalarekin<sup>1</sup> geratzea erabaki da, lan honetarako zehatzena dela pentsatzen baita. Honetan, autokontzeptu eta autoezagutzaren barruan aspektu hauek bereizten dira: akademikoa eta ez akademikoa (honen barruan, autoezagutza soziala, fisikoa eta emozionala egongo lirateke).

Aurreko sailkapen hori oinarri hartuta, eta jakinda lan honetan autoezagutzaren arlotik akademikoa dela gehien landuko dena, gainerako guztien azalpenak<sup>2</sup> eranskinetan joango dira, atal honetan *autoezagutza akademikoa* soilik azalduz.

#### AUTOEZAGUTZA AKADEMIKOA:

Lan honetan, aurretik esan bezala, autoezagutzaren kontzeptua ez ezik, horrek daraman beste elementu batekin lan egingo da, hala nola, *esfortzuarekin*. Betidanik lotu izan da esfortzua indarra hitzarekin, edota irabazi zein lortzeko nahiarekin. Oraingo proiektu honetan, esfortzua autoezagutza akademikoak barne hartzen duen aspektu garrantzitsutzat hartuko da, non horren bitartez, edozer lortzeko gai izango garen. Horretarako, ikasleek emaitza zein prozesua ahalik eta onena izateko saiakerak egin behar izango dituzte, betiere jakinda bakoitzaren buruak dituen gaitasunak zeintzuk diren.

Argi dago pertsona batek edozein hezitzailearik gabe ere ikas dezakeela, baina hezkuntzak rol garrantzitsu bat hartzen du gure bizitzan, horren bitartez, balioak, ariketak eta pertsonen gaitasun intelektualen, kulturalen, fisikoen eta moralen adibideak garatzen direlako. Beraz, hezkuntzak, gizabanakoaren nortasuna barne hartzen du.

Horretarako, ikasleek ere parte hartu behar dute, esfortzua eginez. Esfortzua, ohitura eta metodoa izan dira mendeetan zehar norbait izatera iristeko bete beharreko zereginak (Montesquieu). Premisa hauetatik abiatuz, Locke bezalako pentsalari handiek argi zuten hezteko, ez zela irakurketan eta diktaketetan bakarrik oinarritu behar, baizik eta, behaketan eta errespetuan.

- Autoezagutza akademikoa: Eskolarekin du zer ikusia. Honetan, norberaren autoestimazioak eta autoezagutzak garrantzi handia izango du arlo akademikoan. Pertsonak bere buruaren gainean egiten duen balioespena (autoestimua) bere

---

<sup>1</sup> Shavelsonek, Hubnerrek y Stantonek (1976) egindako sailkapen hierarkikoa (Ikus 1.go eranskina)

<sup>2</sup> Autoezagutza ez akademikoaren azalpena (Ikus 2.eranskina)



irudiaren ondorio logikoa da (autokontzeptua). Autokontzeptua hobetzean, autoestimua maila ere hobetzen da, eta alderantziz. Bi alderdi hauek erabat lotuta baitaude. Esfortzuaren bitartez, gaitasun gutxiko ikasleak gaitasun handiagoa lortzeko aukera izango du. Esfortzuaren inguruan, Euskal curriculumak ere honela dio:

Ikasleak modu egokian ikustea bere burua eta bere ezaugarriak eta aukerak, jarduerak autonomiaz eta orekaz egitea, eta balioa ematea helburuak lortzeko esfortzuari eta zailtasunak gainditzen joateari.

Norberaren jarrerak identifikatzea eta ikasteko nahiz lan egiteko aukeren alderdi onak eta txarrak balioestea, norberaren proiektu akademikoa eta profesionala zehazteko, ikuspegi errealista batetik eta norberaren gaitasun eta balioekin bat etorrita. (Euskal autonomia erkidegoko oinarrizko hezkuntza curriculumak, 2010)

#### **1.4. Autozagutza eta gizartea**

Bizi garen gizarte honetan, bakoitza den modukoa izatea nahiko konplexua da, modaren arabera mugitzen baikara, hau da, gizarteak zuzena dena esaten duenaren arabera antolatzen gara. Hauxe guztia ez da txarra, nor eta nolakoak garen argi badugu. Izan ere, etengabeko mugimenduan bizi gara, non ez dugun inolako aukerarik geratu eta hausnartzeko. Ez dugu guretzako denborarik izaten, eta horren ondorioz, ez gara pertsona bezala ezagutzen; ez gara gure autoezagutzan zentratzen.

Arazoa da, hauxe guztia desagertzen denean, hutsune bat sentitzen dugula gure barnean, eta pertsona gehienak hutsune hori edonola betetzen saiatzen direla, edonorekin erlazionatzen etab. Arazo honek, gizarte ezjakintasuna sortzen du, bakarrik sentitzeko sentimenduari beldurra izanik. Hori horrela izanda, ez dugu jokatzeko guk nahi dugun bezala, baizik eta besteek gutaz espero duten bezala. Borja Vilaseca (2014).

Gizakia konturatu behar da nolakoa den, hau da, nola ikusten duen norberaren burua, zer da gustatzen zaiona, zer ez, zer da egin nahi duena... Gure aspektu onak eta ez hain onak onartu behar ditugu, baina ez gizarteak horrela izatea nahi duelako, baizik eta pertsona bezala askeak garelako eta horren arabera jokatu behar dugulako. Horretarako, bakarrik egoteko denbora behar dugu, honi beldurra izan barik.

Behin pertsona bezala nolakoak garen jakinda, esan beharko litzateke familiak, komunikazioak eta gizarteak berak eragin handia dutela norberaren nortasuna

eraikitzerako orduan, izan ere, testuinguru batetik abiatuta, familia bakoitzak bere kultura zehatz bat eraikiko du, horien artean gu egongo ginatkeelarik.

“Es conocerce a sí mismo, saber cuales son todas nuestras cualidades aceptando las buenas y cambiando todas las que nosotros vemos que estan mal”. (Edy Mónica)

### 1.5. Autoezagutza eta eskola

Ikerketa batzuen arabera, ikasleen autokontzeptuak eragin zuzena du irakas-ikaste prozesuan erabiliko diren estrategiak kontuan hartzerako orduan. Ikaslea “autokonpetente” sentitu behar da, Miller, Behrens eta Greenek (1996) eta Zimmerman. Bandura eta Martinez-Ponsek (1992) diotenaren arabera, ikasleak bere gaitasunengan konfiantza duenean, auto-efikazia lortzeko aukera gehiagorekin ikusi eta arduratsuago sentituko da.

Puntu hau da proiektu honetan gehien aztertuko dena, izan ere, ikasleen autokontzeptuaren arabera, gehiago edo gutxiago egin dezakete ikaste prozesuan. Thompson, Davidson eta Barber (1995; Pérez, J. C. N. et al. aipatua, 1998) autoreek esandakoaren arabera, ikasle askok esfortzatzeari uzten diote irakasgai zehatz batzuetan duten autokontzeptua negatiboa delako. Hori gertatzen denean, eta emaitza akademikoak txarrak direnean, beste irakasgai batzueganako interesa hartzen hasten dira, pertsonalki irudi positiboa lortzen dutela pentsatzen baitute.

Hau horrela dela ikusita, bi emaitza posible aterako lirateke:

- Ikasleak duen autokontzeptu akademikoa negatiboa bada, ikasteko estrategia gutxiago erabiliko ditu.
- Ikasleak bere buruarengan duen irudia positiboa bada, estrategia gehiago erabiliko ditu, eta ikasterako orduan erabiliko duen arreta nagusiagoa izango da.

## 2. Metodologia

Lehenik eta behin, aipatu beharko litzateke ondoko proiektu honek *esfortzuarekin* erlazio zuzena duela, izan ere, betidanik gustatu izan zaidan gai bat da, eta horren arabera, nire ikasleak behatu eta aztertu egin ditut, irakasgai ezberdinen arabera, bakoitzaren esfortzua neurtuz.

Lan edo proiektu hau egitearen helburuak asko badira ere, atal honetan gutxi batzuk baino ez dira aipatuko, ikasleekin lortu nahi dena soilik azalduko baita. Honetan,

helburuak bitan banatuko dira; *helburu orokorra* (proiektu hau zertarako egingo den ongi azalduko duena), eta, *helburu zehatzak* (atal edo ariketa bakoitzeko planteatutako helburuak izango direnak).

HELBURU OROKORRA
Ikasleak gainerako kideak ez ezik, norbera ere ulertu eta errespetatzea eta esfortzuaren bitartez nahi beste lortu dezakegula ulertzeko gai izatea.

HELBURU ZEHATZAK
- Norberaren burua ezagutzea.
- Norberak dituen akatsak eta onurak adierazteko gai izatea.
- Besteek bakoitzarengan duten pentsamenduak entzun eta errespetatzea*.
- Norberak besteek dituzten ezaugarri onak eta ez hain onak era kritikoan esatea eta horiek errespetatzea*.

\*Nahiz eta errespetu hitza oso zabala izan, ariketa ezberdinen bitartez hori lortuko den ala ez frogatuko da. Jakinda “la deseabilidad del investigador” izeneko kontzeptu hau existitzen dela eta hauxe saihesteko xedearekin, sortuko ditudan ariketak anonimoak izango dira.

Metodologiaren atal honetan, proiektu hau aurrera eramateko egingo diren ekintzak nola eta zergatik burutuko diren azalduko da. Horretarako, ekintza bakoitza zertan datzan azalduko da, hori egiteko arrazoa eta helburuak zeintzuk izango diren aipatuko direlarik.

<u>SEKUENTZIA</u>
PRETEST (30min)
1. INTERBENTZIOA (2h): bi saio
2. INTERBENTZIOA (1h): saio bakarra
POSTEST (30min)

Interbentzioak ordena hori jarraitzea erabaki da, pretesta oinarri hartuta, ekintza desberdinak lantzeko aukera izan eta horiek barnerratzeko gai izango baitira ikasleak.

Jakinda Musituk (1999) autokontzeptuaren lehenengo testak egin zituela, eta ikas taldearen ezaugarriak eta aztertu nahi dena kontuan hartuta, lehenik eta behin *pretest* bat egitea pentsatu da.

PRETEST <sup>3</sup> (Ikasle guztiek egiteko:27 ikasle)	
GALDERA ITXIAK (23)	GALDERA IREKIAK (8)
<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Erantzun finkoak lortzea</li> <li>- Bakoitzari buruzko informazioa lortzea</li> <li>- Esfortzuaren gaiaren inguruan murgiltzea</li> </ul>	<p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaiaren inguruan dakitena ezagutzea</li> <li>- Esfortzuaren gaia ez ezik, bakoitzaren burua (fisiko zein psikologikoa) hobea ezagutzea</li> </ul>
<p>NOLA:</p> <p>Pretest hau nekagarria eta luzea ez izateko, bi orrialde ezberdin banatuko zaizkie; lehenik eta behin, 23 galdera itxien orrialdea (taula batean kokatuta dagoena eta oso arin beteko dutena, erantzun posibleak, bai, ez eta batzuetan izango direlarik), eta hori bukatzen dutenean, bestea egingo dute; honetan, kontzentrazioa eta bat-batekotasuna kontuan hartuko direlarik. Galdera hauek autoezagutzarekin erabat lotuta egongo dira, eta ikasleen autokontzeptu akademikoa ez ezik, gainerako arloak ere zeharka landuko dira. Galdera irekietan, aldiz, autokontzeptu akademikoan soilik zentratuko dira. (Galdera batzuek kontrako esanahia dute, eta nahita egin da, ikasleen erantzunak aldatzen diren ala ez ikusten joateko).</p> <p>Ikasleen izenak ez agertzeko, eta kontuan hartuko diren ikasleak ez baldintzatzeko, orrialde bakoitzaren goiko aldean zenbaki bat jarri da, non nire koadernoan, zenbaki bakoitza norentzat izango den idatzi den. Hauxe egitea pentsatu da, anonimoa izango dela esango diedalako. Horrela, ikasleak lasaiago ibiliko dira, eta benetan pentsatzen dutena idazteko aukera izango dute. Lehen esan bezala, hauxe “la deseabilidad del investigador” delako kontzeptua saihesteko egingo da, ikasleek nik erantzutea nahi dudana alde batera utzi eta benetan pentsatzen dutena erantzun dezaten.</p>	
<p>NORTZUK EBALUATU:</p> <p>27 ikasleek egin arren, 11 dira ebaluatuko direnak (5neska eta 6mutil), behaketa prozesuan, autoezagutza altua zein baxua izan dezaketen ikasleak direlako susmoa izan baitut.</p>	

Pretest honen ondoren, bi interbentzio soilik egingo dira, gehiago eginez gero, mamia aldatu eta benetan aztertu nahi dena ahaztuta gera daitekeelako. Hauek hilabete baten tartean egingo dira, dena egun berean egiten bada, ohikoena dena ahaztea izango litzatekeelako. (Ariketa guztiak lanaren garapenean azalduta egongo dira).

<sup>3</sup> PRETEST FITXA (Ikus 3.eranskina)

### 1. INTERBENTZIOA (27 ikasle): Mundua ezagutzen

Helburua:

Inguruneko pertsonen esfortzua baloratzea. Horrez gain, ikasleek haiek ere esfortzatu direla ikustea, eta nahiz eta askotan nahi duguna lortu ez, saiatzen jarraitzea.

NOLA:

1. Jarduera: Non zaude gaur?
2. Jarduera: Eta nik, zer egingo nuke?
3. Jarduera: Gizartea ezagutzen

- |  |
|--|
| <ol style="list-style-type: none"> <li>1. saioan: 1 eta 2 jarduerak</li> <li>2. saioan: 3. jarduera</li> </ol> |
|--|

Taldeka egingo dute lan eta taldeak nik egingo ditut, talde bakoitzean aztertu nahi den ikasle bat egoteko asmoz. Behin taldeak eginda daudenean, web orrialde bat banatuko zaio talde bakoitzari eta bideo hori ikusi beharko dute, bideo guztiek mamia bera izango dutena: “esfortzuaren bitartez, nahi duguna lor dezakegu”.

Bideo horiek alde aurretik erabakiak izan dira, proiektu honetarako guztiz baliagarriak izan daitezkeelako, eta bideoen bitartez, enpatia ez ezik, hobe ikas daitezkeelako.

### 2. INTERBENTZIOA (27 ikasle): Nor eta nolakoa naiz ni?

Helburuak:

- Bakoitzaren nortasuna ulertzen saiatzea eta gainerakoei pentsatzen dudana errespetuz adieraztea.
- Autoezagutza akademikoa ez ezik, fisikoa, soziala eta emozionala zeharka lantzea.
- Bakoitza ezberdina dela onartzea eta besteen kritikak entzuten jakitea.

NOLA:

Bakoitzak orrialde zuri bat hartu eta hasierako pretest hori oinarri hartuta, norberaren deskribapena egin behar izango dute. Orrialde hori 3 zatitan banatuko da, non zati bakoitzean, autokontzeptuaren aspektu ezberdinak landuko diren; hala nola, fisikoa, izaera (soziala eta emozionala) eta akademikoa (gaitasunak).

Ikasle bakoitzak beste guztiei bere burua nola ikusten duten galdetuko die, eta erantzuna paperean idatziko dute. Saio hau egitea erabaki da, ikasleak hain mugikorrak izanik, ariketa honek altzatu eta mugitzeko aukera ematen baitie.

### POSTEST (Ikasle guztiek egiteko:27 ikasle)

Hau guztia ebaluatzeko eta aldaketarik sumatu den ala ez ikusteko, *postest* bat prestatu da, non pretestaren galdera berak agertzen diren. Horretarako, pretestean erabilitako metodologia bera erabiliko da.

### 2.1. Zer da ebaluatuko dena? Nola?

Pretest eta postestean egindako galdera itxiak dira emaitzetan ebaluatuko direnak, eta beraz, autoezagutza akademiko baxua edo altua nork duen aztertzeko, irizpide<sup>4</sup> batzuk adieraziko ditut. Irizpide hauek azterketa kualitatiboa izatetik kuantitatiboa izatera pasatzeko egingo dira, ondoren ondorio zehatz batzuk ateratzeko asmoz.

	<b>GALDERA ITXIAK</b>	<b>GALDERA IREKIAK</b>
<b>EBALUATUKO DIRA</b>	<b>12 galdera</b>	<b>4 galdera</b>
EZ DIRA EBALUATUKO	11	4
GUZTIRA	23	8

Ondoko taula honetan, pretestean agertzen diren galdera itxietatik zeintzuk ebaluatuko diren adieraziko da. Ondoren, galdera bakoitzean, autoezagutza maila altua zein baxua duen ikasleek zelan erantzun beharko luketen aipatuko da:

<b>GALDERA ITXIAK</b>	<b>AUTOEZAGUTZA MAILA ALTUA(1)</b>	<b>AUTOEZAGUTZA MAILA BAXUA(2)</b>
3. Irakasgairik gustukoenean soilik esfortzatzen naiz	Ez	BAI
5. Aspertu egiten naiz esfortzatu behar naizenean	EZ	BAI
8. Laguntza behar dudanean, ez dut eskatzen	EZ	BAI
11. Esfortzatzen naizenean gauzak ondo irteten zaizkit	BAI	EZ
13. Nire burua ez dut gauza batzuetarako gai ikusten	BAI	EZ
17. Gauzak edonola egiten ditut	EZ	BAI
18. Laguntza behar dudanean eskatzen dut	BAI	BAI/EZ
19. Besteen errekonozimendua behar dut	EZ	BAI
20. Positiboa naiz	BAI	EZ
21. Zerbait txarto irteten zaidanean haserretzen naiz	BAI	BAI/EZ
22. Nire burua edozer egiteko gai ikusten dut	BAI	EZ
23. Akatsak onartzen ditut	BAI	BAI/EZ

<sup>4</sup> PRETEST eta POSTESTaren galdera irekiak ebaluatzeko irizpideak (Ikus 4.eranskina)

Galdera irekiek, azkeneko emaitzan eragina izango dute, ikasleek zintzotasunez erantzuten badute, hauek ikasle batek autoezagutza maila baxua edo altua duen momenturako lagungarria izan daitezkeelako, baina berez, hauek ez dira ebaluatuko, eranskinetan joango baitira, lagungarri gisa.

Hala ere, egindako interbentzioek ere ebaluazio propio bat izango dute, lanaren garapenean azalduta egongo dena.

### 3. Lanaren garapena

Jakinda 3 hilabeteko jardunaldia izango dudala, lehenengo egunetan ikasle bakoitza behatuko dut, eta ondoren, ekintzak egiteari ekingo diot. Ariketa mota<sup>5</sup> ezberdinak daudela jakinda, nik ondoko hauek egitea erabaki dut, norberaren burua ezagutzeko baliagarriak eta erabilgarriak direla pentsatzen baitut.

Egindako ariketa bakoitzeko taula bat sortuko dut, bakoitzaren aukeraketaren zergatia, metodologia eta praktikan jarri ondoren gertatu egin dena azalduz, eta horretarako, ikasleen erantzunak aintzat hartuko ditut.

SAIOAREN IZENA	PRETEST
ZERGATIK ARIKETA HAU?	Ikasleak ezagutzeko eta nolako autoezagutza duten ikertzeko.
METODOLOGIA:	<p>Ikasle bakoitzari galdera itxien orrialde bat banatuko zaio. Erantzunak gurutze batekin markatu behar izango dituzte (Bai, ez eta batzuetan izango dira erantzun posibleak).</p> <p>Ariketa horrekin bukatu dutenean, galdera irekien orrialdea banatuko zaie. Bertan, galdera guztiak erantzun behar izango dituzte.</p> <p>Anonimoa izango da, norberaren lasaitasuna sustatzeko eta ahalik eta zintzotasun gehienez erantzuteko.</p>
ZER GERTATU DA?	<p>Galdera itxietan, ikasle batzuek ez dute hiztegia oso ondo ulertu, eta kontzeptu batzuk pixkat azaldu behar izan dira.</p> <p>Galdera irekietan, hainbat galdera puntu berdinean erantzun behar izan dutenean, batzuek zenbait galdera erantzun gabe utzi dute.</p>

---

<sup>5</sup> Ariketa bakoitzaren azalpen zehatza (Ikus 5.eranskina)

Pretest hori egin ondoren, hilabete bat pasatzen utzi nuen, denbora tartea handiagoa izateko. Horren ostean, 1.esku hartzearekin hasi nintzen, non esfortzuak rol garrantzitsu bat jokatuko zuen.

SAIOAREN IZENA	MUNDUA EZAGUTZEN (1.Interbentzioa)
<p>ZERGATIK ARIKETA HAUEK?</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Norberaren burua ezagutzen hasteko eta errealitatean gerta daitezken kasuak ezagutzeko asmoz egin dira lehenengo bi jarduerak.</li> <li>- Esfortzatzen diren pertsona ezberdinak onartzeko eta bizitzan hainbat arazo egon arren, betiere esfortzuarekin behar adina helburu lor daitezkeelako.</li> <li>- Bideoen bitartez, saioa dinamikoagoa izateko eta gehiago ikasi ez ezik, enpatia landu daitekeelako.</li> </ul> <p>Bideo horiek hautatzea erabaki dut, nire proiektu honetarako guztiz baliagarriak suerta zaizkidalako eta adin honetarako aproposak direlako.</p>
<p>METODOLOGIA:</p>	<p><b>1.Jarduera: Non zaude gaur?</b> (15min)</p> <p>Ezer esan gabe, bi irudi<sup>6</sup> ezberdin erakutsiko dizkiet eta ia norbaitek bertan ageri dena azalduko digun galdetuko diet. Ondoren, horiek zertarako balio duten galdetuko diet.</p> <p>Horrekin bukatu ondoren, gaur bakoitzaren burua zein eskaileretan ikusten duen galdetuko diet, eta horretarako, bi irudi horiek gelako horman itsatsiko ditut.</p> <p>Bi irudi hauek aukeratu ditut, ariketa honetarako oinarritzkoak direla pentsatzen baitut. Horrenbestez, irudi horiek inprimatu nituenean, ezaugarri batekin egin nuen topo: irudiak hurbiletik begiratzen baditugu, pixelatuta bezala ikusten dira; aldiz, urrunetik begiratzen baditugu, ondo irakur daitezke.</p> <p>Hori azaldu egingo diet, gure ingurura geureganatuz, hala nola, batzuetan, hain hurbil ditugun gauzak ez ditugu ongi ikusten, baina urrun daudenak, hau da, gure lagunei gertatzen zaizkienak, primeran ikusten ditugu, nahiz eta gu egoera berdinean egon.</p> <p><b>2.Jarduera: Eta nik, zer egingo nuke?</b> (45min)</p> <p>Ordenagailua hartu eta benetako kasu<sup>7</sup> bat irakurriko diedala esango diet. Horretarako, haien laguntza behar</p>

<sup>6</sup> Irudiak (Ikus 6.eranskina)

<sup>7</sup> Egoera (Ikus 7.eranskina)



	<p>dudala adieraziko diet (horrela, motibatuago sentituko dira). Egoera ahoz gora irakurriko dugu, ikasle guztiek irakurketa jarraitzeko eta gero, galderak egingo dizkiet.</p> <p><b>3.Jarduera: Gizartea ezagutzen (1h)</b></p> <p>Jarduera hau beste egun batean egingo da, eta horretarako, informatika gelara joango gara. 6 talde ezberdinetan banatuko dut gela. Taldeak nik egitea erabaki dut, talde bakoitzean aztertu nahi dudana ikasle bat egoteko asmoz.</p> <p>Talde bakoitzari web orrialde bat emango diot eta bertan datorren bideoa ikusi egin beharko dute. Bideoak<sup>8</sup> oso ezberdinak izan arren, guztiek mamia bera dute: “esfortzuen bitartez, nahi duguna lor dezakegu”.</p> <p>Behin bideo horiek ikusita, talde bakoitzak ikusitakoa azaldu beharko du, eta horrez gain, harrigarriena iruditua zaiona komentatzeko aukera izango du.</p> <p>Ondoren, nor esfortzatzen den galdera egingo diet. Horrela, pertsonaia famatuak ez ezik, gure inguruko pertsonak ere esfortzatzen direla ikusi eta ikasiko dute.</p>
<p>ZER GERTATU DA? IKASLEEN ERANTZUNAK:</p>	<p><b>1.Jarduera:</b> Eskaileren marrazkia gustatu egin zaie. Gehienek, “trataré de hacerlo” eta “puedo hacerlo” eskaileretan kokatu dira.</p> <p><b>2.Jarduera:</b> Ez dute espero bezala parte hartu, gehienek erantzun berdina eman dituztelako. Ikasle trebearen paperean kokatu dira guztiak, eta bere anaia-arrebak laguntzen saiatuko zirela erantzun dute.</p> <p><b>3.Jarduera:</b> Bideoak gustatu egin zaizkie eta batzuek birritan ikusi nahi izan dituzte. Bakoitzak azaltzerako orduan, ume batzuek ez dute pentsatu bezala parte hartu.</p> <p>Autoezagutza altua duela pentsatzen dudana ume batek, bideoei buelta bat eman eta bideo hauek zertarako jarri ditudan galdetu dieganean, hauxe erantzun du: “Esateko bideoaren bidez, gu saiatzen bagara, guk nahi duguna lortuko dugula gure bizitzan”. Beste batzuek, hauxe esan dute: “Nor esfortzatzen den ikusteko”; “Bideoetan gauza txarrak agertu arren, saiatzen bagara dena lortu ahal dugula”.</p> <p>Nor esfortzatzen den galdetu dieganean, eta nik pertsona famatuak soilik esfortzatzen ez direla esatean, hauxe esan dit batek: “Krisiarekin, gurasoak esfortzatzen dira”.</p>

<sup>8</sup> Bideoen linkak eta horien laburpenak (Ikus 8.eranskina)

Hasierako esku hartze honetan ateratako ondorioak ikusita, gaian murgiltzea lortu da.

SAIOAREN IZENA	NOR ETA NOLAKOA NAIZ? (2. Interbentzioa)
ZERGATIK ARIKETA HAU?	<p>Hain talde mugikorra izanik, bakoitza nor eta nolakoa den jakiteko, eta pretestaren galdera batek adierazten zuena kontuan harturik, ikasleen errekonozimendua edota ikasle bakoitzak nola ikusten gaituen jakiteko aukera izango dute.</p>
METODOLOGIA:	<p>Aurretik egindako zein ikasitako guztia birpasatu eta komentatuko dugu; eta bakoitzak orrialde<sup>9</sup> bat hartu eta hasierako pretest hori oinarri hartuta, hiru zatitan banatu behar izango du (nik nire orrialde propio hori erakutsiko diet, zer egin behar duten erakusteko).</p> <p>Behin hori eginda, atal bakoitzean zer idatzi beharko duten azalduko diet, horretarako, galdera zabal horiek berriro irakurriz. Lehenengo atala fisikoari buruzkoa izango da; bigarrena, izaerari buruzkoa, eta hirugarrena, aldiz, gaitasun zein trebetasunen ingurukoa.</p> <p>Ikasleak altxatu eta lana banaka izango den arren, besteen onarpena zein iritzia kontuan hartu beharko dute galdera ezberdinen bitartez. Ikasle bakoitzak beste guztiei bere burua nola ikusten duten galdetuko die, eta erantzuna paperean idatziko dute. Amaieran, bakoitzari gehien eta gutxien gustatu zaion komentarioa esango du. (Ikus 10.eranskina)</p>
ZER GERTATU DA? IKASLEEN ERANTZUNAK:	<p>Pentsatu baino motibatuago ikusi ditut eta hain gustura egon direnez, ordu bateko iraupena izateko erabakia hartu dugu.</p> <p>Behin ariketa azalduta, nik ere parte hartuko dudala esan diet, haiek ere nire irakaslearen papera ez ezik, ni pertsona bezala ere ezagutzeko asmoz. Hori ikusita, tutoreak ere parte hartuko duela esan du. Horrela, ikasleek ere gu ebaluatu gaitzakete. Parte hartzea erabaki dut, haienganako konfiantza hori mantentzeko eta nolako irudia dudan eta nolakoa naizen jakin nahi dudalako.</p> <p>Autokontzeptu akademikoa ez ezik, ez akademikoa ere landu da, non fisikoak eta izaerak rol garrantzitsu bat hartu duten. Guztiek, komentario negatiboak gustatu ez zaizkiela esan dute, baina horren aurrean, nik galdera hau planteatu diet: Ados zaudete esandakoarekin?</p> <p>Momentu horretan, baietz esan, eta haien trebetasunak zein desabantailak onartu egin dituzte.</p>

<sup>9</sup> Ariketaren azalpenaren zirriborroa (Ikus 9.eranskina)

Hasieran 3 esku hartze egitea pentsatu nuen, baina behin horrekin hasita, hirugarrena soberan geratuko zela pentsatu dut, ikasleak nik nahi nuena ulertzeko gai izan direlako (edo hori da niri adierazi didatena). Horren ondorioz, tauletan azaldutako bi interbentzio horiek egin ditut pretest eta postestaren bitartean, eta azkeneko 3. saioa kentzea erabaki da. Honetan, hilabete hauetan ikasitako guztia mural batean irudikatzea eskatuko zitzaien, baina ikusita 2. esku hartzeak izan duen eragina eta irakasleak ere esan didana, ariketa hori soberan dagoela ondorioztatu dut, eta beraz, ez da interbentzioan agertuko.

SAIOAREN IZENA	POSTEST
ZERGATIK ARIKETA HAU?	Nire bi esku-hartzeak burutu ondoren, aldaketaren bat nabaritu den ala ez ikusteko asmoz errepikatuko da.
METODOLOGIA:	Hasieran banatutako 23 galdera itxien orrialdea berriro ere bete behar izango dute.
ZER GERTATU DA?	Aldaketaren bat ikusi izan da, ondorio eta emaitzak atalean azalduko dena.

1. eta 2. interbentzioetan landu diren saioak nik sortutako plantilla<sup>10</sup> batekin ebaluatuko dira.

#### 4. Emaitzak eta ondorioak

Jakinda interbentzio hauek aurretik aipaturiko helburu orokor eta zehatz batzuk izango dituztela, proiektu hau egiteak izan dituen abantailak eta desabantailak zeintzuk izan diren komentatuko da. Abantailen artean, norbera ezagutzeko gaitasuna sartuko litzateke, non bizi garen gizarte honetan, nortzuk eta nolakoak garen jakin beharko genukeen. Honetan, pertsona gisa hazteko, ezinbestekoa da norbera ezagutzea eta hori errespetatzea.

Desabantailak ere badaude, hiru hilabetetan egindako interbentzioen bitartez, gainerako kideak errespetatu zein esfortzatzen jarraitzea, edota aldaketa nagusiren bat nabarmentzea oso zaila izanik. Landa lana izan arren, epe laburreko ikerketa izan da, eta jakinda ondorioak ez direla oso ikusgarriak izango, proiektu hau ahalik eta erantzun zein aldaketa ugarien sortzeko pentsatua izan da, hartutako lagina oso txikia izan arren.

Atal hau bitan banatuko da; hala nola, emaitzak eta ondorioak.

---


<sup>10</sup> Interbentzioak ebaluatzeko plantilla (Ikus 11.eranskina)

### 4.1. Emaitzak

Lan honen 2.1. atalean azaldu bezala, autoezagutza akademiko altua zein baxua izango dutenen erantzunak nolakoak izan beharko liratekeen jakin beharko genuke, eta horretarako aurretik aipaturiko irizpidea erabiliko da.

Beheko taula honetan, populazioa izeneko sektore bat agertzen da, gelan dauden neska eta mutilen portzentaia azaltzen duena. Horren ondoan, taula bat dago, non gela osoaren

artean zenbat aztertuko diren aipatzen duen.



	MUTI.	NESK.	GUZT.
<b>ZENBAT AZTERTU</b>	6	5	<b>11</b>
<b>ZENBAT EZ</b>	10	6	<b>16</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>11</b>	<b>27</b>

Hau horrela izanda, pretest eta postestean agertu zaizkigun emaitzak sailkatzeari ekingo diogu, horretarako, taula bi sortuz. Taula hauek sortzeko, galderak eta erantzun egokiak zein okerrak hartuko dira kontutan, ikasle bakoitzak galdera<sup>11</sup> bakoitzean zer jarri duen jakinda, erantzun berdinak taldekatuko direlarik.

Erantzunak sailkatzeko, 2.1. atalean ikus daitekeen irizpidea erabili da, erantzun zuzenak 1 zenbakiarekin irudikatuz, eta okerrak, aldiz, 2 zenbakiarekin. Erantzun posibleak, bai, ez eta batzuetan izan daitezke, eta azkeneko hau erantzun dutenek ere, 2 zenbakia izango dute galdera zehatz horretan.

Behin pretest eta postetari dagozkion taulak osatuta daudenean, aspektu kuantitatibo horiek grafiko batean kokatuko ditugu eta bi aldagaiak alderatuko dira, emaitza posibleak zer nolakoak izan daitezkeen azalduz.

---



<sup>11</sup> Ikasle bakoitzak galdera bakoitzean erantzun duena (Ikus 12.eranskina)

**PRETEST**

	Erantzun egokia	Erantzun okerra
3.Galdera	9	2
5.Galdera	8	3
8.Galdera	8	3
11.Galdera	7	4
13.Galdera	1	10
17.Galdera	9	2
18.Galdera	8	3
19.Galdera	2	9
20.Galdera	7	4
21.Galdera	3	8
22.Galdera	8	3
23.Galdera	7	4

**POSTEST**

	Erantzun egokia	Erantzun okerra
3.Galdera	7	4
5.Galdera	7	4
8.Galdera	7	4
11.Galdera	7	4
13.Galdera	3	8
17.Galdera	7	4
18.Galdera	7	4
19.Galdera	4	7
20.Galdera	10	1
21.Galdera	3	8
22.Galdera	5	6
23.Galdera	7	4



Emaitza hauek aztertuta, argi ikusten da postesteko grafikoa orekatuago dagoela, eta hori aldaketaren oinarria izango litzateke. Erantzun egokiak jaitsi eta okerrekin gora egin dute, eta hau harritu nauen emaitza denez, zintzotasunez jokatu dutelakoan nago.

Horiek horrela, argi dago ikasle askok autoezagutza maila nahiko baxua dutela, nahiz eta galdera zehatz batzuetan, maila akademikoa altua izan.

Aurretik aipaturiko “la deseabilidad del investigador” izeneko kontzeptu hori, argi ikus daiteke aurreko grafikoetan. Pretestaren emaitzak ikusita, nabaria zen ikasle batzuek nik nahi nuena erantzun dutela, eta postestean, aldiz, zintzotasunez erantzun dutela.

Hori horrela izanda, galdera irekiak egitea planteatu nituen, nire pentsamenduak egiazkoak ziren ondorioztatzeko.

Behin galdera guztiak erantzunda, ikasle bakoitzaren batz bestekoa aterako da, non 12 erantzun posible horietatik, nola erantzun duen ikusita, autoezagutza akademikoa altua edo baxua izango duen ondorioztatuko da.

#### Emaitzak portzentaietan:

Lagina 11 dela kontuan harturik, pretest eta postestean ikasle bakoitzak eman dituen emaitzak aztertu eta ondoko portzentaia adieraz daiteke:

Pretest: 7/11 altua(%63,6); 1/11 baxua (%9,1); 3/11 normala (%27,3)

Postest: 6/11 altua (%54,5); 3/11 baxua (%27,3); 2/11 normala (%18,2)

Portzentaia hauek ikusita, nabaritzen da autoezagutza akademikoa altua dutenek behera egin dutela, eta autoezagutza baxukoek, aldiz, gora egin dutela.

(Ikasle bakoitzaren erantzunak eta portzentaiak ikusi nahi izanez gero, jo 11.eranskinera)

Egindako interbentzio hauetan guztietan, autoezagutza garatzea eta norbera ezagutzea nahi izan da, horretarako, helburu zehatz eta orokorrak ez ezik, Euskal Curriculumak aipatzen dituen oinarritzko gaitasunak ere zeharka landuz. Gaitasun horiek ez dira ebaluatuko, eta horren ondorioz, ez dira aztertuko.

## **4.2. Ondorioak**

Nik egindako proposamenari erreparatuz, prestatutako ariketak baliagarriak izan direla behatu dut, emaitzetan azaldu bezala, nahiz eta aldaketa nabarmen ugarririk ez gertatu, batzuen autoezagutza maila aldatu egin da, gehienetan, onerako.

Ariketetan bizi izandakoa kontuan harturik, lehen hezkuntzako maila honetarako erabilgarriak izan daitezkeela pentsatzen dut, egindako ariketa guztiak, 3.mailako adin honetarako moldatuak izan baitira.

Pretest eta postestean behatutakoaren arabera, hiztegi tekniko erabili dudala pentsatzen dut, eta horrek zailtasunak ekarri ditu ikasleak galdera batzuk ulertzerako orduan, beraz, hurrengo baterako, hori aldatu beharko nuke. Hala ere, prestatutako bi esku hartze horiek mantenduko nituzke, bertan ateratako emaitzak oso positiboak izan direlako, eta ikasle batzuen jarrera egunetan zehar aldatzen joan delako.

Jakinda metodologian aipaturiko helburuak zeintzuk izan diren, eta pertsonen nortasunaren aldaketa ezin dela 3 hilabetetan egin, ateratako ondorioek ez dute informazio gehigarri askorik erantsi. Emaitzetan aldaketa handiak sumatzeko, epe luzeago bateko ikerketa egin beharko litzateke, jakinda prozesu hauek oso astiro doazela, ohikoa da aldaketa nabarmenik agertu ez izatea.

Hala ere, 27 ikasle izanda, nik erdia baino gutxiago aztertzea erabaki dut, 11, hain zuzen ere, gutxi batzuetan zentratua etekin handiagoa atera dezakedalako. Landa lan hau egin ondoren, norberaren burua ezagutzeko aurrerapauso bat eman dugulakoan nago, norberak dituen akatsak eta onurak adierazteko gai izan baitira. Horrenbestez, ikasleek bakoitzarengan pentsatzen dutena entzun eta errespetatzen saiatu dira, betiere ezaugarri onak eta ez hain onak era kritikoan esanez.

Hau horrela izanda, eta helburuak zeintzuk izan diren kontuan harturik, betetzen joan direla esan dezaket, nahiz eta prozesu honek denbora gehiago beharko lukeela jakin. Beraz, denbora gutxi honetan, aurrerapausoak egon direla ikusi izan da, baina honek ez du esan nahi ehuneko ehunera bete direnik, lehen esan bezala, norberaren nortasuna aldatzeak denbora gehiago dakarrelako.

Emaitza deigarri hauek ikusita, ondo egongo litzateke ikerketa honetan jarraitzea, etorkizunerako, datu hauek beste proposamen didaktiko baterako erabilgarriak izan daitezkeelako. Horrenbestez, proiektu hau egiteko sortu den materiala aproposa izan daiteke honetan lan egin dezakeen beste pertsona batentzat, moldatu egin daitekeelako.

Hurrengo lanetarako proposamenak egin behar izango banitu, interesgarria izango litzateke hezkuntzan parte hartzen duten faktoreak ikertzea, hala nola, motibazioa, familien eta irakasleen eragina, ikasleekiko interakzioak... Hezkuntza arlo hain zabala izanda, arlo akademikoa ez ezik, ez akademikoan parte hartzen duten elementuak aztertu beharko lirateke, ikerketa horren bitartez, ikasleen autoezagutzaz gain, bakoitzaren nortasuna ere ezagutzeko asmoz.

*“En nuestro caso, el concepto de representación pone de relieve la idea de que los afectos y emociones que se actualizan en los procesos educativos escolares no surgen como respuesta directa a los estímulos presentes, sino que se encuentran claramente mediatizados por las representaciones que profesores y alumnos han elaborado de ellos. Enre estas representaciones destaca sin duda la representación que la persona tiene de sí misma, su autoimagen o autoconcepto”.*

(Coll, C., Palacios, J., & Marchesi, A. 1990)



## 5. Erreferentzia bibliografikoak

Arabako hitza. (2014). *Autoezagutza*. Araba: Autor.

Axpe, I., & Uralde, E. (2006). Dos formatos (papel y online) de un programa educativo para la mejora del autoconcepto físico. *Revista de Psicodidáctica/Journal of Psychodidactics*, 13(2). 2015/01/011an helbide honetan, <http://www.ehu.es/ojs/index.php/psicodidactica/article/viewFile/241/237>

Axpe Saez, I., Goñi, E., Madariaga, J. M., & Arribillaga Iriarte, A. R. (2011). *Potencialidad de la aplicación autónoma de un programa para la mejora del autoconcepto físico*. 2014/12/12an helbide honetan, <http://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/3687/221.pdf?sequence=7>

Ayora Pérez, D., García Ferriol, A., & Rubio Swift, S. (1997). Factores del autoconcepto relacionados con el rendimiento de los adolescentes en educación física. *Revista de Psicología del deporte*, 6. 2015/05/14an helbide honetan, <http://www.imd.inder.cu/adjuntos/article/733/Factores%20del%20autoconcepto.pdf>

Bandura, A. (1997). Perceived self-efficacy in cognitive development and functioning. *Educational Psychologist*, 28, 117-148

Cava, M. J., Musitu, G., & Vera, A. (2000). Efectos directos e indirectos de la autoestima en el ánimo depresivo. *Revista Mexicana de Psicología*, 17 (2), 151-161.

Coll, C., Palacios, J., & Marchesi, A. (1990). *Desarrollo psicologico y educación*. Madrid: Alianza editorial (vol.2, cap 12).

Fernández, O. G. (2006). Estructura multidimensional del autoconcepto físico. *Revista de Psicodidáctica/Journal of Psychodidactics*, 10 (1). 2015/03/19an helbide honetan, <http://www.ehu.es/ojs/index.php/psicodidactica/article/viewFile/376/356>

García, F., & Musitu, G. (1999). *Autoconcepto forma 5*. Madrid: TEA.[Links].

García, J., Musitu, G., & Veiga, F. (2006). Autoconcepto en adultos de España y Portugal. *Psicothema*. 18 (3), 551-553.

Gascón, A. D. L. H. (2004). El autoconocimiento como eje de la formación. *Revista Complutense de educación*, 15 (1). 2015/01/25an helbide honetan, <http://revistas.ucm.es/index.php/RCED/article/view/RCED0404120011A/16270>

González-Pienda, J. A., Pérez, J. C. N., Pumariega, S. G., & García, M. S. G. (1997). Autoconcepto, autoestima y aprendizaje escolar. *Psicothema*, 9 (2), 271-289.

Grandmontagne, A. G., & Etxaniz, I. E. (2006). Autokontzeptu fisikoa neurtzeko galdesorta berri baten propietate psikometrikoak: Autokontzeptu Fisikoaren Itaketa (AFI). *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, (56), 109-122.

- Greene, B. A., & Miller, R. B. (1996). Influences on achievement: Goals, perceived ability, and cognitive engagement. *Contemporary Educational Psychology*, 21(2), 181-192.
- Hezkuntza, U. eta I. S. (2010). Oinarrizko hezkuntza curriculum. *BOPV*, 1-109
- Locke, J. (1986). *Pensamientos sobre la educación*. Madrid: Akal S.A.
- Luna, N. C., & Molero, D. (2013). Revisión teórica sobre el autoconcepto y su importancia en la adolescencia. *Revista Electrónica de Investigación y Docencia (REID)*, (10). 2015/04/18an helbide honetan, <http://revistaselectronicas.ujaen.es/index.php/reid/article/view/991/818>
- Madariaga, J. M., & Goñi, A. (2006). El desarrollo psicosocial. *Revista de Psicodidáctica/Journal of Psychodidactics*, 14(1). 2015/01/20an helbide honetan, <http://www.ehu.es/ojs/index.php/psicodidactica/article/viewFile/253/249>
- MARTOS, A. C. (2011). ¿ESTAMOS FORMANDO VERDADEROS PROFESIONALES?. *Revista digital investigación y educación*, (45). 2015/02/21ean helbide honetan, [http://www.csic.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_41/ANTONIA\\_CLEME\\_NTE\\_1.pdf](http://www.csic.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_41/ANTONIA_CLEME_NTE_1.pdf)
- Matalinares, M., Arenas, C., & Yaringaño, J. (2011). Factores personales de resiliencia y autoconcepto en estudiantes de primaria de Lima Metropolitana. *Revevista de investigacion psicologica*, 14 (1), 187-208.
- Palacios, E. G., Zabala, A. F., & Borinaga, G. I. (2012). El autoconcepto personal: diferencias asociadas a la edad y al sexo. *Aula abierta*, 40(1). 2015/02/14ean helbide honetan, <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3791853>
- Pappas, J. D., & Friedman, H. L. (2007). The construct of self-expansiveness and the validity of the Transpersonal Scale of the Self-Expansiveness Level Form. *The Humanistic Psychologist*, 35 (4), 323-347.
- Payá, M. (1992). El autoconocimiento como condición para construir una personalidad moral y autónoma. *Comunicación, lenguaje y educación*, 4 (15). 2015/05/13an helbide honetan, <http://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=126263>
- Pérez, J. C. N., González-Pienda, J. A., Rodríguez, M. G., González-Pumariega, S., Montero, C. R., Álvarez Pérez, L., & Torres, M. D. C. G. (1998). Estrategias de aprendizaje, autoconcepto y rendimiento académico. *Psicothema*, 10 (1), 97-109.
- REDONDO, J. C. M. (2008). EL AUTOCONCEPTO Y LA AUTOESTIMA, FACTORES DECISIVOS EN EL APRENDIZAJE. *Revista digital investigación y educación*. (45). 2015/03/16an helbide honetan, [http://www.csic.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_13/JOSE\\_C\\_MONCAYO\\_1.pdf](http://www.csic.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_13/JOSE_C_MONCAYO_1.pdf)

- Roda, M. D. S., & Sánchez, F. J. P. (2003). Relaciones entre el autoconcepto y el rendimiento académico, en alumnos de Educación Primaria. *Electronic journal of research in educational psychology*, 1(1), 95-120.
- Rodríguez, A., Goñi, A., & de Azúa, S. R. (2006). Autoconcepto físico y estilos de vida en la adolescencia [Physical self-concept and lifestyles in adolescence]. *Intervención psicosocial*, 15(1), 81-94.
- Ros, I. (2009). La implicación del estudiante con la escuela. *Revista de psicodidáctica*, 14(1), 79-92. 2015/02/06an hemendik hartua, <http://recyt.fecyt.es/index.php/REVP/article/view/6399/5111>
- Rosário, P., Lourenço, A., Paiva, M. O., Núñez, J. C., González-Pienda, J., & Valle, A. (2012). Autoeficacia y utilidad percibida como condiciones necesarias para un aprendizaje académico autorregulado. *Anales de psicología*, 28 (1). 2015/04/16an hemendik hartua, [http://www.researchgate.net/profile/Abilio\\_Lourenco/publication/236233179\\_Auto\\_eficacia\\_y\\_utilidad\\_percibida\\_como\\_condiciones\\_necesarias\\_para\\_un\\_aprendizaje\\_acadmico\\_autorregulado/links/02e7e52e04a2604df9000000.pdf](http://www.researchgate.net/profile/Abilio_Lourenco/publication/236233179_Auto_eficacia_y_utilidad_percibida_como_condiciones_necesarias_para_un_aprendizaje_acadmico_autorregulado/links/02e7e52e04a2604df9000000.pdf)
- Salvador, J. M. (1992). Eficacia del feedback en la modificación del autoconcepto académico. *Revista de psicología general y aplicada: Revista de la Federación Española de Asociaciones de Psicología*, 45(1), 63-72.
- Sánchez, S. R. (2010). El autoconcepto académico como posibilitador del rendimiento escolar. *Psicopediahoy*. 2015/03/04ean hemendik hartua, <http://psicopediahoy.com/autoconcepto-academico-rendimiento-escolar/>
- Savater, F. (1997). *El valor de educar*. Barcelona: ARIEL, S. A..
- Shavelson, R. J., Hubner, J. J., & Stanton, G. C. (1976). Self-concept: Validation of construct interpretations. *Review of educational research*, 407-441.
- Suanes, M. N. (2009). AUTOCONOCIMIENTO Y AUTOESTIMA. *Revista Digital Para Profesionales de la Enseñanza* (5). 2014/11/21ean hemendik hartua, <http://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd6409.pdf>
- Vilaseca, B. (2014, abenduaren 14a). La educación exige emociones. *El País Semanal*. 2015/04/29an hemendik hartua, [http://elpais.com/elpais/2014/12/12/eps/1418401341\\_900515.html](http://elpais.com/elpais/2014/12/12/eps/1418401341_900515.html)

## ERANSKINAK